



2020ko HERRI ALDIZKARIA

Herritar maiteak,

Uste dut iragan berri dugun urtea luzaz gure gogoan atxikiko dugula. Egia da, iaztik hona, gure bizimoldeak azkarki kanbiatu direla, bereziki jendartearen eta lanaren ikuspegitik. Herriko kontseilu guziak enekin bat egiten du gure urrikalmenduaren adierazteko aurrekaririk gabeko osagarri krisi honek hurbiletik edo urrunetik hunki dituen familiei, eta, partikularki, primaderan azkarki hunkiak izan ziren Pausa Lekuko egoiliarrei, haien familiei eta langileei.

Esperantza dugu krisi honetatik aterako garela, elkarrekin, eta, hola, herriko biziak usaiako joaira berriz hartuko duela, urte osoan antolatzen diren kultur, besta eta kirol animazioekin.

Herriko aferei dagokienez, 2020 urte bukaera zerbitzu publikoak zutik mantentzen pasa genuen. Halarik ere, herriko kontseiluak zenbait gogoeta egin ahal izan zituen, ondoko urteetan proposatu nahi dizkizuegun zenbait proiekturi buruz.

Gure programan aipatu genuen bezala, gure herri barnearen antolamenduari buruzko gogoeta orokorra egin nahi dugu, geroko herriaren garapena, ekipamendu publikoak, segurtasuna eta herriaren zeharkatzea behar bezala pentsatzeko eta obratzeko. Euskal Hirigune Elkargoaren, Tokiko Lur Funtsen Erakunde Publikoaren (EPFL) eta Departamenduaren zerbitzuekin harremanetan jarri gara. Zerbitzu horiek prozesu honetan laguntzen gaituzte. Gure nahia da zuei aurkeztea herri barnearen antolatzeko zenbait posibilitate, bilkura publiko parte hartzaile batzuetan.

Duela guti, edateko uraren hoditeria zaharraren orde berriaren ezartzeko obrak hasi dira, 251. errepidean, Ibarra lotizamendutik Pausa Lekuraino. Beharrezkoa da hori egitea, herri barneko geroko instalazioak aisatzeko. Obrak finitu artean, zirkulazio trabak mugatzeko neurriak hartuko dira.

Hondarkinen bilketari dagokionez, 2021 urtea baliatuko da hondarkin-zutabeen biharko kokapenaren zehazteko. Hondarkin-zutabe horiek 2022ko primaderan prest izanen dira. Bilkura publiko bat antolatuko da hondarkinen bilketaren erreforma horren erronkak eta aplikazio moldeak presentatzeko.

Bururatzeko, jakinarazten dizuet herriko webgune berria prest dela: <https://isturitz.fr/>

Eskerrak eman nahi dizkiet, bereziki, herriko kontseilari guziei –beti laguntzeko prest baitira–, herri aldizkaria idazten parte hartu duten jendeei eta gure herriko elkarteetako ordezkariari.

Zuen eta ahaide hurbilen osagarria zain ezazue.

Frédéric CAMOU

Herriko kontseiluko hautetsiak

HERRIAREN 2020ko KONTU ADMINISTRATIBOA**Soberakina, orotara: + 324.285,90 €****Funtzionamendua**

Gastuak	426.601,89 €
- Izaera orokorreko gastuak	103.647,99
- Langile kargak	207.837,69
- Usaiako kudeaketa gastuak	99.153,60
- Finantza kargak	12.189,61
- Salbuespenezko gastuak	1.975,00
- Amortizazioak	1.798,00

Sartzeak	540.899,30 €
- Zerbitzuen diru sartzeak	140.454,02
- Zergak (*tokiko zerbitzuak barne)	171.902,05
- Estatuaren emaitza	107.620,32
- Eraikinen diru sartzeak	98.900,00
- Laborantzako lurren alokatzeen diru sartzeak	1.245,14
- Finantza irabaziak	6,60
- Salbuespenezko irabaziak	289,06
- Gastuen ttipitzea	20.482,11

Inbestimendua

Gastuak	451.234,53 €
▪ Herriko bide obrak	30.277,07
▪ Materialaren erostea	1.010,60
▪ Bizitegi kolektiboen eraikitzea	343.199,17
▪ Herriko eraikinak + etxe-lurren antolaketa	10.099,10
▪ Helbideratzea	12.273,07
▪ Elizako aparkalekua	16.685,54
▪ Webgunea	324,00
▪ Finantza eragiketak	18.699,31
▪ Maileguen interesak	18.666,67

Sartzeak	194.717,31 €
▪ BEZaren diru itzultzea	10.221,00
▪ Ekipamenduen Tokiko Zerga (TLE)	3.917,83
▪ Dirulaguntzak: bide obrak, sartzeko errazbideak, etxe-lurren antolaketa	40.479,39
▪ Mailegua	130.000,00
▪ Finantza eragiketak	8.301,09
▪ Amortizazioak	1.798,00

Emitza, orotara: + 182.066,09 €***2020ko ZERGA TASA (Tokiko zergak)**

Tasak	2019ko tasa	2020ko tasa	2020ko oinarria	2020ko emaitza
Bizitegi zerga	%10,66	%10,66	498.900	53.183
Etxeekilako lurren gaineko jabetza zerga	%8,15	%8,15	318.000	25.917
Etxerik gabeko lurren gaineko jabetza zerga	%39,39	%39,39	29.500	11.620
Orotara				90.720

2021eko ZERGAK: ZER KANBIAMENDU ENE HERRIAN?

Erreformaren printzipioa

Bizitegi zergaren erreforma gauzatzen ari da. Orain, zerga bitan zatikatzen da:

- Bizitegi nagusien gaineko bizitegi zerga
- *Bigarren bizitegien gaineko bizitegi zerga

Herritarren %80ak kasik ez du gehiago pagatu behar bizitegi nagusien gaineko zergarik.

Urte honetatik goiti (eta osoki desagertu arte), gainerateko herritarrek (herritarren %20ak) pagatu behar zituzten zergak Estatuak ditu biltzen.

Nola konpentsatzen da herriaren aldeko diru sartzeen galera hori?

Bizitegi nagusien gaineko zergaren ordeztasun, erabaki da herriari ematea ordu arte Departamentuak biltzen zuen etxeekilako lurren gaineko jabetza zerga (%13,47ko tasan).

Erreforma honek ene zergak handituko ditu?

Ez. 2020 arte, zerga agirian, "herria" zutabe bat bazen, %8,15eko tasarekin, eta, "Departamendua" zutabe bat, %13,47ko tasarekin.

Erreformak ekarri du bi zutabeek bat egitea, besterik ez.

2021eko, herriko kontseiluak deliberatu du etxeekilako lurren gaineko jabetza zergaren tasaren ez emendatzea. Zutabeen bat egitearen ondorioz, %21,62ko tasa agertuko da (8,15 + 13,47).

Ondorioz, erreformaren ondotik, ene zergaren zenbatekoa erreforma aitzineko bera izanen da.

***Oharra:** 2023 arte finkatua da bigarren bizitegien gaineko bizitegi zergaren tasa (% 10,66, 148.371 euroko oinarriaren gainean; hots, orotara, 15.816 €).

Herriko kontseiluak, beraz, ez du arlo horretan erabakitzeke ahalmenik.

2021eko ZERGAK: ZER KANBIAMENDU EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAN?

2021eko apirilaren 10eko Euskal Hirigune Elkargoko kontseiluan, elkargoko kontseilariak gehiengoz (129 alde, 24 kontra, 39 abstentzio) honako proposamen hau onartu zuten:

- Etxerik gabeko lurren gaineko jabetza zergaren tasa bera atxikitzea, hots, %3,87;
- Etxeekilako lurren gaineko jabetza zergaren tasa %2,79an ezartzea.

Tasak	2020ko tasa	2021eko tasa
Etxeekilako lurren gaineko jabetza zerga	%0,29	%2,79
Etxerik gabeko lurren gaineko jabetza zerga	%3,87	%3,87

Tasa horiek zerga agirian agertzen dira, "elkargoa" zutabearen.

2021eko apirilaren 10eko Euskal Hirigune Elkargoko kontseiluan, elkargoko kontseilariak gehiengoz (158 alde, 9 kontra, 22 abstentzio) deliberatu zuten GEMAPI-UIKUP (Ur Inguruneen Kudeaketa eta Uholdeen Prebentzioa) tasaren diru sartzea 5 milioi euroren inguruan finkatzea 2021eko.

Diru sartze hau zerga agirian agertuko da, "GEMAPI" zutabearen.

Azkenik, beti ere 2021eko apirilaren 10eko elkargoko kontseilu hartan, elkargoko kontseilariak gehiengoz (181 alde, 3 kontra, 6 abstentzio) deliberatu zuten TEOM-EHBT (Etxeko Hondarinen Biltzeko Tasa) bera mantentzea 2021eko, hots, %10,10. Tasa hori zerga agirian agertzen da, dagokion zutabearen.

SORTZEAK:

- Elena BELLOCQ, 2020ko maiatzaren 10ean sortua
- Rose, Ilara GRACIET, 2020ko ekainaren 16an sortua

HERIOTZAK:

- Juliana Maturina FERNANDEZ DOMINGUEZ, 2020ko urtarrilaren 11n zendua, Pausa Lekuan
- Henriette HARISTOY, 2020ko urtarrilaren 13an zendua, Pausa Lekuan
- Léocadie DOYHAMBOURE, 2020ko otsailaren 1ean zendua, Pausa Lekuan
- André LARRE, 2020ko otsailaren 18an zendua, Pausa Lekuan
- Jean IRAÇABAL, 2020ko martxoaren 2an zendua, Pausa Lekuan
- Saint-Martin CAILLABA, 2020ko apirilaren 14an zendua, Pausa Lekuan
- Pierrette Micheline HIRIART, 2020ko maiatzaren 2an zendua, Pausa Lekuan
- Marie ELSO, 2020ko maiatzaren 5ean zendua, Pausa Lekuan
- Simone OSPITAL, 2020ko maiatzaren 6an zendua, Pausa Lekuan
- Jean LASSARTE, 2020ko maiatzaren 30ean zendua, Pausa Lekuan
- Pierre ETCHART, 2020ko ekainaren 19an zendua, Xurtxurietan
- Jean-Louis TOCOUA, 2020ko agorrilaren 3an zendua, Pausa Lekuan
- Marie-Jeanne GARRA, 2020ko agorrilaren 26an zendua, Pausa Lekuan
- Marie-Andrée GARAT CHARRITTON, 2020ko buruilaren 14an zendua, Mendilahatsuan
- Catherine SARHY, 2020ko urriaren 19an zendua, Pausa Lekuan
- Madeleine LARRE, 2020ko urriaren 23an zendua, Pausa Lekuan
- Madeleine ETCHEBASTER CAZENAVE, 2020ko urriaren 27an zendua, Xarlestegian
- Jean-Baptiste, François HIRIGOYEN 2020ko abenduaren 17an zendua, Pausa Lekuan
- Marie-Jeanne DARRIGADE ARHANCET, 2020ko abenduaren 21ean zendua, Larzabalian
- Dominique SOUBELET, 2020ko abenduaren 26an zendua, Pausa Lekuan

EZKONTZA:

Valèry, André, Albert FEVRE eta Catherine, Marie-Jeanne PALMISANO, 2020ko urriaren 24an, Sabarotzian

HIRIGINTZAKO AGIRIA ERAIKITZEKO BAIMENA – ANTOLATZEKO BAIMENA

Eraikitze baimenak:

- Izturitzeko herria: teilatuko leiho baten eta panel fotovoltaikoen gehitzea.
- Doina TINU: 334,59 m²-ko 2. etxe lekuaren eskualdatzea.

Hirigintzako agiriak:

- François LARRANDABURU: lurraren saltzeko xedea, geroan hor etxe baten eraikitzeko.
- SELARL GEODENAK: etxe-lur baten zatikatzea.

Obren aitzinetikako deklarazioa:

- Thomas PIERROT: garaje bat etxeko gela bilakatzea + etxe aitzinari kanbiamenduen egitea.
- Pierre DARCHE: igerileku baten eraikitzea.
- Pierre CHARRITON: etxe aitzinari kanbiamenduen egitea + panel fotovoltaikoen ezartzea.
- SFR: SFR telefono antenen instalatzea
- José CARCELLER: baratze etxola baten ezartzea betoizko terrazaren gainean.
- Didier eta Joëlle LAVOINE: etxe aitzinari kanbiamenduen egitea + hesiaren ezartzea.
- EDF ENR: elektrika sorgailu fotovoltaiko baten instalatzea.
- Sandrine BIDART: igerileku lurperatu baten eraikitzea + dutxa eta komunak dituen aterpe baten eraikitzea.
- Jean-François CHRISTY: panel fotovoltaikoen instalatzea.
- Coralie PERREIRA: hesiaren eta xeilaren ezartzea.
- Office 64 de l'Habitat: baranden ordezkatzeta; baratzearen mailan ate automatiko baten ezartzea; baratzearen mailan eta etxe behean bi terrazaren antolatzea.



2020ko DIRULAGUNTZAK

Elkarteak	
ADELFA 64	100
Arberoa Ikastola	7.360
Arberoa Ikastola 2019ko erregulazioa	2.250
Association pour l'Enseignement aux enfants malades	200
Ezkia Ikastola	1.280
Hemen Elkartea	100
Herria kazeta	100
Institut Bergonie	200
Integrazio Batzordea	400
Kanaldude	100
Lurzaindia	100
Irulegiko Irratia	200
Recherche Contre Le Cancer	100
Herriko elkarteak	
Abarratia	350
ACCA Goratik 2018ko erregulazioa	250
ACCA Goratik	250
Artetxea	250
Ikasleen burasoen elkarteak	
Arberoa Ikastola Aintzina (9 ikasle) 2019ko erregulazioa	180
Arberoa Ikastola Aintzina (23 ikasle)	460
Bernat Etxepare lizeoa (5 ikasle)	100
Elhuyar (14 ikasle)	280
Ezkia Ikastola (4 ikasle)	80
Jean Verdun (4 ikasle)	80
Ursuya (4 ikasle)	80
Xalbador Kolegioa (13 ikasle)	260

OROTARA eman dirulaguntzak: 15.110 €

2020ko OBRA PROIEKTUAK

Helbideratzea: Karrikako panelen hornitzea eta ezartzea.

Ekipamenduak: Zepuru bideko sareak.

Bide bazterretako belar eta arbolen mozte lanak: Herriko bide guzietan.

OROTARA (ZERGAK GABE): 34.586,13 €

HERRIKO BIDE OBRAK

Arlandegiko bordako bidea: Bidearen betetzea legar aitzinetik bahetuarekin (0/40), berdintzea, bide bazterren sendotzea, arroilen garbitzea eta hiru geruzaz estaltzea.

Oihanburuko Bordako bidea: Bidearen betetzea legar aitzinetik bahetuarekin (0/40), berdintzea, bide bazterren sendotzea, arroilen garbitzea.

Oihanburuko bidea, Xapital Bordarantz: Bidearen betetzea legar aitzinetik bahetuarekin (0/40), berdintzea, bide bazterren sendotzea.

Garakoitxeko bidea: Bidearen hobetzea zati zahar batzuetan.

Ibarra lotizamenduko bidea: bide bazterren finkatzea, mundruna geruzen kentzea, bidearen betetzea legar aitzinetik bahetuarekin (0/40), bidearen betetzea legar xeheko geruza batekin eta estaltzea legar xeheko beste geruza batekin.

Harrobiko bidea "5. herriko bidea": legar aitzinetik bahetu (0/40) eta trinkotuarekin egin hodian ezartzea.

Bidarteko bordako bidea: Harri-lubeten ezartzea, harrien (40/150) lurreztatzea eta bidearen betetzea legar aitzinetik bahetuarekin (0/40).

Herriko bizitegiak: Bide bazterren ezartzea, landareendako lurraren gehitzea eta estalduran junturen egitea.

OROTARA (ZERGAK GABE): 30.277,07 €



ARBEROAN ALAIKI AISIALDI ZENTROA 2020ko urtea

Arberoan Alaiki aisialdi zentroa **Aiherra, Izturitze, Donostiri eta Donamartiri**ko herrien nahikari politikoaren ondorioz sortu zen. Asteazkenetan eta eskolako bakantza guzietan (salbu Eguberriko bakantzetan) hezkuntza, kultura, kirol eta arte aktibitateak proposatzen ditu.

Aisialdi zentroa Izturitzeko "Le Petit Prince" eskola publikoan da.

Langile taldea euskaraz eta frantsesez mintzo zaie hurrei, eguneroko biziko memento guzietan; harrera elebiduna da, beraz.

Aisialdi zentroak, 2 eta 13 urte arteko haurrak hartzen ditu, goizeko 07:30etik goiti.

Aisialdi zentroaren hezkuntza helburuak oinarritzen dira laiktasunaren, berdintasunaren, demokrazia parte-hartzailearen eta elkartasunaren balioetan.

2020ko urtea COVID-19 delakoaren osagarri krisiak markatu zuen, eta martxotik goiti aisialdi zentroa hetsi behar izan zen.

Osasun-protokoloaren malgutzaren ondorioz (oraino arras zorrotza izanik ere), udako banatzetan aisialdi zentroa berriz ireki ahal izan zen.

Ordur geroztik, aisialdi zentroa 07:30etik 18:00etara irekia da (lehengo 18:30en orde, kontuan hartzeko desinfektatze-protokoloa).

Asteazkenetan, 57 familiak erabili zuten zerbitzua, hots, orotara 67 hurrek.

Familiei egun erdiko funtzionamendua eskaintzen zaie, kanpoko esku hartzaile batek urtarrean eta otsailean goizez animatzen duen pilota aktibitatearekin.

Buruiletik abendura, animazio taldeak gai andana bati buruzko tailerrak proposatu zizkien hurrei.

- **Taldea:** Carmen CARCELLER zuzendari izateko gaitasun agiridun zuzendaria eta Audrey IPUY, Aurélie BISCAYCHIPY eta Elorri LANDABURU animatzaile izateko gaitasun agiridun hiru animatzaileak.

Ikasturteko eskola bakantzetan, 55 familiak izena eman zuten, hots, orotara 79 hurrek. Ihafterien eta Halloweenen inguruko animazioak antolatu ziren. Aktibitate andana bat proposatu zitzaizen: sukaldaritza tailerrak, sorkuntza aktibitateak eta eskulanak; kirol eta animazio jokoak; joko handiak.

- **Taldea:** Carmen CARCELLER zuzendari izateko gaitasun agiridun zuzendaria. Animatzaile izateko gaitasun agiridun animatzaileak: Audrey, Aurélie, Elorri, Karine HILDÉRAL, Uxue ELOSEGUI-MARTINON, Itxaro DUNATE, Béatrice GARRA, Manon MESPLES. Eta agiririk gabeko animatzaileak: Laura PENALVA eta Lore MENDILHATXOU.

2020ko udako bakantzetan, Arberoan Alaiki aisialdi zentroak 61 familia hartu zituen, hots, orotara 85 haur.

Osagarri krisiagatik ezin izan zen ateraldirik programatu; hala ere, animatzaileek herrialde anitzetara bidaiarazi zituzten haurrak (Frantzia, Italia, Senegal, Txina, Brasil, Euskal Herria), eta aktibitateen bidez hango eta hemengo tradizioak eta kulturak ezagutarazi zizkieten.

- **Taldea:** Carmen CARCELLER zuzendari izateko gaitasun agiridun zuzendaria. Animatzaile izateko gaitasun agiridun animatzaileak: Elorri, Uxue, Béatrice, Itxaro D., Itxaro ELOSEGI MARTINON eta Michèle NARP. Eta agiririk gabeko animatzaileak: Lore, Laura, Elisa BARNETCHE eta Lucie APHECETCHE.

Haur kopurua herri bakoitzeko:

	Asteazkenetan	Neguko bakantzetan	Omasaainduko bakantzetan	Udako bakantzetan
Aiherra	22	22	24	31
Izturitze	27	31	23	33
Donostiri	8	3	10	8
Donamartiri	6	2	5	8
Beste herri batekoak	4	2	2	5

BIGABAT HERRIARTEKO ESKOLA ELKARGOA AIHERRA ETA IZTURITZEKO ESKOLA PUBLIKOAK



Biga Bat herriarteko eskola elkargoak Aiherra eta Izturitzeko eskola publikoak bateratzen ditu.

Herri bakoitzeko hautetsiek – Frédéric CAMOU eta Arño GASTAMBIDE bi auzapezak barne– eta ikasleen burasoen ordezkariak osatzen duten batzorde sindikalak du Biga Baten funtzionamendua segurtatzen.

Arño GASTAMBIDE da lehendakaria.

Eskolaren hestea eragin zuen COVID-19aren osasun krisiak markatu zuen ikasturtea. Eskola maiatzean berriz ireki zen, baina osasun-protokoloen ondorioz ikasle kopuru mugatuak hartu ahal izan ziren.

Bi herrietako hautetsien nahikaria izan zen ahalik eta haur gehien hartzeko zazpi eginahalak egitea, eta, horretarako, 2S2C baliabidea (Kirola-Osasuna-Kultura-Jendetasuna) aplikatzea. Horrek aukera ematen zuen hezkuntzako eta jostatzeko aktibitateak proposatzeko irakasleek eskolan hartzen ez zituzten hurrei; aktibitate haiek ikaskuntzen luzapen eta urruneko irakaskuntzaren osagarri gisa pentsatzen ziren.

Ekain erditsutan, eskolako osasun-protokoloa malgutzeak bidea eman zuen ikasle guziak berriz hartzeko.

Eskerrak ematen dizkiegu langile eta laguntzaileei beren prestasun eta malgutasunagatik.

Biga Bat herriarteko eskola elkargoak 84 ikasle zituen 2020-2021 ikasturtean, hola zatikaturik:

- **Izturitzeko eskola** (ama eskolako ttipietatik 1. urtera): 52 ikasle elebidun, frantses irakasle 1, euskara irakasle 1 eta 3 laguntzaile elebidun.
- **Aiherrako eskola** (2. urtetik 5. urtera): 32 ikasle elebidun, frantses irakasle 1, euskara irakasle 1.

Irakaskuntza elebidunean, oren parekotasuna bada: 12 oren frantsesez eta 12 oren euskaraz.

Eskola bakoitzean, haurtzaindegi batek haurrak hartzen ditu 07:30etik goiti. 18:00ak arte irekia da arratsez; baina ez gehiago, desinfektatzeko protokoloa kontuan hartzeko.

Urririkako joan-jinkari batek haurrak eskolatik eskolara garraiatzen ditu, segurtasun baldintza egokietan. Izan ere, bidaia bakoitzean, laguntzaile bat egoten da hurrekin.

Kantinak herri bakoitzean funtzionatzen du. Orduan, langile kalifikatu batzuk arduratzen dira zerbitzuaz eta ikasleez, bazkari denboran eta eguerdiko kanpoko tenorean.

Biga Bat herriarteko eskola elkargoa lehentasunezko lurralde eta mendialde gisa sailkatua da. Horregatik, bi urteko eta gehiago haurrak hartzen ahal ditu.

Asteazkenean, Arberoan Alaiki aisialdi zentroak eskolaldi inguruko harrera eskaintzen du. Orduan, haurrak egun osoan edo egun erdian hartzen ditu.



GIZARTE EKINTZAKO HERRIKO ZENTROA (GEHZ)

Definizioa:

GEHZ-ek herriko gai sozialak kudeatzen ditu. Aurrekontu autonomia du. Herriko auzapeza da GEHZ-en eskubide osoko lehendakaria.

Administrazio-kontseiluan 9 kide badira, haietan:

- **5 hautetsi titular:** Frédéric CAMOU, Virginie LEGARTO, Nickie LE LOREC, Monique LOHIAGUE, Karine MALE DIT CAZOT.
- **Hautetsi ordezkari bat:** Myriam GOURGUES
- **Elkarteen 4 ordezkari** –familien, adinekoen eta elbarrituen edo gizarteratzearen alde eta bazterteraren kontra lanean ari diren elkarteetako ordezkariak–: Bernadette ASCERY, Claude CANDIARD, Marie-Pierre CASEMAJOR, Marie-Josée LACROIX.

Ahalmenak:

- Baitezpadakoak: Gizarte Ekintzako dosierak osatzea eta Departamenduko zerbitzuei helaraztea.
- Hautuzkoak: araubideak baimena ematen dio "prebentzio eta garapen sozialeko ekintza orokor bat" egiteko (CASF-en R123-2. artikulua), laguntzak emanez "bizitzaileen beharren azterketa" egin ondoren (CASF-en R123-1. artikulua).

Ahalmenen gauzatzea:

GEHZ-ek ez du kalifikaziorik ezohiko laguntzen beharrak estimatzeko. Beharrez, Hazparneko GEHZ-ekin harremanetan jartzen da diagnostikoa egiteko.

- Diru sartzeak honakoak izan daitezke:**
- Herriak eman dirulaguntza
 - Emaizak edo ondare emateak

Deliberamenduak:

Bilkurak atek hetsirik egiten dira, administratzaileak behartuak baitira deliberamenduak sekretupean atxikitzen. Gainera, ez da xedapenik GEHZ-en bilkura agiriak afixatzera behartzen duenik.

2020ko kontuak:

Diru sartzeak: 4.000,00 € (herriaren ordainketa)

Gastuak: 1.750,88 € (herriak erretratuei eskaini apairu eta txokolateak)

2021eko aurrekontuan erakarri beharreko zenbatekoa: 2.249,12 €

Beste gaiak:

- **Auto partekatzea:** erregistro bat bada Herriko Etxean autokidetzan ibili nahi duten pertsonendako.
- **Adinekoei eskaini apairu eta txokolateak:** gutienez 60 urte dituzten jendeei apairua eskaini zitzaizen. Eta apairura jin ezin izan zuten eta gutienez 75 urte dituzten jendeei txokolateak eskaini zitzaizkien.

BERRIAK

Alokatzeen prezioak:

Erabilera anitzeko sala edo Denen Etxea	Isturiztarrak	Kanpokoak
- Egun erdia	200 €	400 €
- Egun osoa	350 €	700 €
- Gutienez 50 pertsonako taldea	200 €	400 €
“On Egin” kantina	100 €	200 €

Trinketea:

Oren bat, argirik gabe, 18:00etatik goiti: 7 €

Oren bat, argiarekin, 18:00etatik goiti: 10 €

Larunbat goizean eta igandean 18:00ak arte, trinketea urrik da herritarrendako.

Trinketearen irekitzeko:

1. Deitu 06 61 97 67 11 zenbakira, kuxaren irekitzeko kode zenbakiaren eskuratzeko.
2. Jostatu trinketea.
3. Trinketetik atera aitzin, bete zure esku ezarri dokumentua eta garbiketa egin osasun-protokoloan zehaztua den bezala.
4. Giltza bere tokian ezarri aitzin, segurtatu trinketeko atea ongi hetsia dela.
5. Aldatu kodea, giltza-kutxa blokatzeko.

Ekipamendu publikoaren ibilera onaren bermatzeko, denen ardura da trinketea ahal bezain egoera hoberenean mantentzea. Heltzean, galdutako zaizue trinketearen egoera ona kontrolatzea; kalteak agertuz gero, azken erabiltzailea izanen da eragin kalteen erantzulea. Trinketa erabiltzen duten haur adingabeen kasuan, burasoen erantzukizuna da protokoloak errespetatzea.

Erabilera anitzeko sala edo Denen Etxea:

Herriko elkarteek urrik baliatzen ahal dute, baina elkarte bakoitzak urtean gehienez 3 aldiz baliatzen ahal du. Laugarren alditik goiti, elkarteak 100 € pagatu beharko ditu gertakari bakoitzeko.

Herriko pertsona batek sala bi egunez baliatzen badu ezkontza baten ospatzeko, alokairuaren prezioa egun batekoa izanen da.

Kasu guzietan alokairu kontratu bat sinatuko da, **gertakaria baino hilabete bat lehenago**. Kontratuari barne araudia erantsiko zaio.

Salaren alokatzeko, Herriko Etxera joan behar duzu kontratua eta barne araudia sinatzeko eta berme txekia uzteko.

Osasun egoeraren ondorioz, salaren alokatzeak geldituak dira. 2021eko uztailaren 1etik goiti, sala berriz alokatzen ahalko da.

Oharra: Besta Komiteak eta Herriko Etxeak jakinarazten dute mubleak (mahaiak + aulkiak) urririk prestatzen dituztela. Zerbitzu hau interesatzen bazaizu, jarri harremanetan Herriko Etxeko idazkariarekin. Hartu eta itzuliko diren bakoitzean, prestatze-erregistroa sinatu beharko da.

Idazkaritzaren ordutegia:

Herriko Etxea irekia da tenore horietan:

Astelehena: 08:00 – 12:30

Asteartea: 08:00 – 12:30 eta 13:30 – 17:30

Ortzeguna: 08:00 – 12:30

Ortziralea: 08:30 – 12:30 eta 13:30 – 19:00

Herriko ikasle laguntzak:

Goi-mailako irakaskuntzan (baxotik goiti) izena eman duten ikasle guziei galdegina zaie Herriko Etxeari lehenbailehen jakinaraz diezaiotela, ikasle laguntza bat eskura dezaten (lehen galdea egiteko, bankuko nortasun agiria eta eskolatze agiria eman behar dira). “Prépa” edo prestakuntza klasean izena eman duten ikasleek ere ikasle laguntza eskuratzen ahal dute, baina prestakuntzaren iraupenaren arabera.

Oharra: ikasle laguntza urte guziez ordainduko zaie, maiatzetik goiti, aitzineko ikasturte sartzean izena eman zuten ikasleei.

Errolda, “Defentsa eta Herritartasuna” eguna:

Frantses herritartasuna duen orok, 16 urterekin, Herriko Etxeak errolda dezan galdegin behar du. Baitezpadakoa da konkurtsoetara, etsamina publikoetara eta gidabaimenera aurkeztu ahal izateko.

Hilerria:

Herriak bost hilobi sortu zituen. Lau libro dira. Interesa duen orok Herriko Etxeari galda diezaioke.

Hilerriko lekuen ematea:

Familiako hilobi baten jabea bazara, segurta zaitez jabego titulua baduzula; hurrei ematen ahalko diezu. Argibide gehiago nahi izanez gero, Herriko Etxeari galda.

Herriko berriak:

Badu zenbait urte Herriko Etxeak herrian edo inguruetan iragaten diren gertakari edo ekitaldien berri ematen dizuela.

Informazio hauek Internet bidez jaso nahi badituzue, igor zuen helbide elektronikoak: site.isturitz@gmail.com

Jostalekua:

Eskolaldian:

Jostalekua ez daiteke erabil eskolako tenoreetan.

Jostalekua erabil daiteke asteburuetan.

Jostalekua erabil daiteke asteazkenetan, 14:00etatik goiti.

Jostalekua erabil daiteke astelehen, astearte, ortzegun eta ortziraletan, 17:00etatik goiti.

Eskola bakantzetan:

Aisialdi zentroak eraikina erabiltzen duelarik:

Jostalekua erabil daiteke egutegiaren arabera.

Aisialdi zentroak jostalekua arratsaldean erabiltzen duelarik, 18:30etik goiti jendeak erabil dezake.

Aisialdi zentroak ez duelarik jostalekua erabiltzen, jendeak erabil dezake.

Salbuespen gisa, debekatua izan daiteke jostalekua erabiltzea.

Denak goxoki sentitzeko eta denak errespetatzeko, jostalekua beti garbi utzi behar da. Horretarako, zikinontzi anitz daude denen eskura.

4G teknologiako antena-errepikagailuak:

Zerbitzu digital berriak hedatzeko, SFR operadoreak Ameztoiko antena-errepikagailu multioperadorea martxan ezartzeko engaiamendua hartu du 2021eko ekainaren erditsuko, eta horrek 4G sare estaldura efikaza izateko ahala emanen digu.

Zuntza:

Horrekin batera, La Fibre 64 sindikatak zuntz optikoa instalatu du gure herrian. Sare arazoengatik Internet harpidetza baten hartzeko zailtasunak baldin badituzu, Herriko Etxeko idazkaritzari jakinaraz, otoi. Orduan, THD64 zerbitzuarekin harremanetan jarriko gara.

Esteka honen bidez, jakiten ahal duzu zure etxeak zuntz optikoa izaten ahal duen: <http://thd64.fr/carte-deligibilite/>

Webgunea:

Herriak webgune berria du.

Atal anitzetako artikuluak irakurtzen ahal dituzue, frantsesez eta euskaraz.

- Herriaren aurkezpena.
- Desmartxa administratiboak.
- Kultura eta aisialdiak.
- Berriak.



Commune
D'ISTURITZ



Isturitzeko webgunea idekia da

Webgunea linean da, esteka honetan: <http://isturitz.fr/eu>



Herriko kontseiluak erabaki du Herriko Babes Zibileko Planaren (HBZP) egitea, herritarren segurtasuna zaintzeko eta haien ondasunak eta ingurumena ahalik eta hobekien babesteko.

Plan honen helburua da krisi egoerari buru egiteko hartu behar diren prebentzio eta sokorri neurriak definitzea. Gainera, herria legez behartua da Herriko Babes Zibileko Planaren (HBZP) egitea.

Dokumentu honi Arrisku Nagusiei Buruzko Herriaren Informazio Dokumentua (ANBHID euskaraz, DICRIM frantsesez) deitzen zaio. Gure lurraldea mehatxatzen duten arriskuak aurkezten ditu, errespetatu behar diren segurtasun kontsignak oroitarazten ditu, herriak pentsatu alerta baliabideak zehazten ditu, eta arrisku nagusirik gertatuz gero deitu behar diren larrialdi zenbakiak eta jarraiki behar diren desmartxak zerrendatzen ditu.

Herriaren webgunean kontsulta daiteke: <https://isturitz.fr/eu>



Ogi banagailua:

Herriko kontseiluak aldeko erantzuna eman zion Saumont jaun eta andere Aiherrako okinek gure herrian ogi banagailu baten ezartzeko galdeari.

Jakinarazi nahi dizuegu trinketearen sartzearen aitzinean ezarri dugula, eta beti baliagarri dela, salbu asteazkenetan, orduan okindegia hetsia baita.



EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAN ARDURADUN DIREN HAUTETSIAK:

Elkargoko arduradun titularra:	Gilles HARAN
Elkargoko ordezeko arduraduna:	Virginie LEGARTO
Lurralde antolaketa batzordeko arduradunak:	Gilles HARAN Eric MIMIAGUE Nathalie ETCHEGOYEN
Kohesio soziala batzordeko arduradunak:	Virginie LEGARTO Nickie LE LOREC
Uraren ziklo handia batzordeko arduraduna:	Frédéric CAMOU
Hondakinak batzordeko arduraduna:	Frédéric CAMOU
Mendialdea batzordeko arduraduna:	Gilles HARAN

GURE BIZI INGURUNEA ZAIN DEZAGUN! DEBEKATUA DA LURREAN HONDARKINAK UZTEA!

Oieskeria gehiegi ikusten dituzte oraino Euskal Hirigune Elkargoko bilketa zerbitzuko langileek! Hondarकिन biltzeko itzulietan, zernahi gauza ikusten dituzte lurreean –etxeko hondarकिन zikinontzi zakuak, banaketako kartoi marroi zabalak, hondarकिन berdeak edo tamaina handiko hondarकिनak–, baina ez behar luketen ontzietan!

Oieskeriak GELDI!

Hondarकिनak lurreean uztea –dela leku publikoetan, dela leku pribatuetan– oieskeria gisa kontsideratua da; eta bilketa ontzi baten zolan uzten direlarik ere (bilketa-araudiaren ez errespetatzea).

Jendetasunaren kontrako jokabide horiek (hondarकिनak uztea naturan edo edukiontzien zolan) arau haustea dira. Hondarकिनak pausatu dituen erabiltzaileak 1.500 euro arteko isuna biltzen ahal du, egintzaren larritasunaren arabera.

Gainera, hondarकिनak lurreean uztean, kutsadura arriskuengatik ondorio negatiboak, anitzak eta zuzenak ekartzen dituzte, bai herritarren bizi kalitatean, bai ingurumenean eta osasun publikoan. Azkenik, hondarकिन horien biltzeak eta lekuen garbitzeak gastu gehigarriak sortzen dizkio Elkargoari.

Legez kanpoko pausatze horien kontrako baliabidearen indartzea

Zinpeko elkargoko langileak, polizia zerbitzuen osagarri gisa, isunak ezartzen hasiko dira urte honen hastapenetik.

Hondarkintegia: hondarकिन handi edo arriskutsuendako soluzio bakarra!

Produktua hondarकिन bilakatzen delarik edo axola gabe botatzen delarik ez dira desagertzen ingurumenean eta osasunean dituen ondorio kaltegarriak. Justu alderantziz.

Hau da kalterik ez eragiteko soluzio bakarra: hondarkintegia.

Gaur egun, hondarkintegiek behar diren ekipamendu guztiak dituzte erabili nahi ez diren produktu horiek hartzeko eta zinezko soluzioak eskaintzen dituzte hondarकिनak sail egokietan birziklatzeko eta balorizatzeko.

Nahi ez diren kartoi, muble, etxetresna elektriko, hondarकिन berde eta bestelako hondarकिन bereziak uzteko, joan Ipar Euskal Herriko 26 hondakinetarik batera!

Etxeko hondarकिनak murrizteko soluzioa?

- ✓ **Bereiztea:** Zikinontziak arintzeko, oroit paketatze estalki birziklagarriak, berina eta papera araberako bilketa-zutabeetan botatzea, bereizketa gomendioak errespetatuz.
- ✓ **Konpostatzea:** Etxeko hondarkina osatzen duten hondarकिन %30 eta %40 artean baloratzeko, konpost-ontzi bat erabiltzen ahal duzu.



L'ÉLAGAGE : ON VOUS DIT TOUT !


ÉLAGUER POUR FACILITER LE DÉPLOIEMENT DE LA FIBRE OPTIQUE ET LA MAINTENANCE DU RÉSEAU

POURQUOI FAUT-IL ÉLAGUER ?


Les plantations situées à proximité des réseaux aériens nécessitent une surveillance et un entretien régulier. Trop proches des câbles, elles peuvent provoquer un mauvais fonctionnement, voire en cas de frottement ou de chute de branches une interruption de service. Les végétaux peuvent également gêner ou empêcher l'accès aux poteaux.

QUI DOIT ÉLAGUER ?

Si les plantations sont implantées sur une propriété privée et que les distances entre les branches et les lignes ne respectent pas la réglementation (voir illustrations), alors conformément à l'article 85 de la Loi du 7 octobre 2016 pour une République numérique, il est de la responsabilité du propriétaire du terrain, du fermier ou leurs représentants, de prendre en charge les opérations d'entretien des abords d'un réseau ouvert au public telles que le débroussaillage, la coupe d'herbe et l'élagage. L'élagage peut être réalisé par le propriétaire lui-même ou par une entreprise agréée de son choix.



RÉSEAU ÉLECTRIQUE




Il convient d'attirer l'attention des propriétaires en leur précisant :

1. qu'aucun travail d'élagage ne doit être entrepris aux abords des lignes électriques sans accord préalable d'ENEDIS (à saisir en adressant l'imprimé cerfa n°90-188) et nécessite une habilitation pour travailler dans un environnement électrique. Par ailleurs, dans la majorité des cas, ENEDIS est en charge de l'élagage, il est donc nécessaire de se rapprocher de cette dernière.
2. qu'il est formellement interdit à quiconque de tenter de monter sur les poteaux électriques ou téléphoniques.

QUELLES SONT LES DISTANCES À RESPECTER ?

Chaque plantation du domaine public ou privé doit respecter une distance de 1,5 mètres et 0,50 mètre en largeur autour des lignes téléphoniques.



**« Ma Mission Locale » (Ene Tokiko Misioa)
aplikazioaren Euskal Herriko bertsioa erabilgarri!**

Sakelako telefonoko aplikazioa

Informazio bila dabiltzan 16 eta 25 urte arteko gazteendako

Tokiko Misioaren eta gazteen arteko harremanak errazteko, Akitania Berriko sareak **Ma Mission Locale** (Ene Tokiko Misioa) sakelako telefonoko aplikazioa sortu du.

Sakelako telefonoko aplikazio honi esker, gazteek edozein mementotan eta klik bakarrean honakoa egiten ahalko dute:

- o aitzinetikako izen ematea Tokiko Misioan
- o Tokiko Misioari buruzko informazio guzia eskuratu (permanentzia lekuak...)
- o beren burua aurkeztu lan eskaintza batera
- o antolatu gertakari guzien berri izan eta horietara izena eman

Aplikazio hori Akitania Berriko Tokiko Misioen sareak garatu du. Aplikazioa hedatu aitzin, entseguak egin zituen: satisfamendu inkestaren bukaeran, entseguetan parte hartu zuten 50 gaztek aho batez gomendatu zieten sakelako telefonoko aplikazio mugikorra lagunei.

Erabiltzaileen beharrak ahal bezainbat asetzeko, **Ma Mission Locale** sakelako telefonoko aplikazioa erregulariki eguneratuko da, eskualdeko proiektu taldearen iruzkinen arabera.



De jour comme de nuit, **Ma Mission Locale** en 1 clic...

Jeunes 16-25 ans
[IN]Système

Emploi
Évènement
Stage
Infos pratiques
Formation
Pré-inscription
Demande de rendez-vous

Scannez-moi !

Ma Mission Locale dans la poche !

Available on the App Store
GET IT ON Google Play

Aplikazioa eskuratzeko: App Store, Google Play edo gaineako QR kodea

**HERRIKO
ELKARTEEN BIZIA**



ABARRATIA

*AIHERRA - IZTURITZE
DONOZTIRI*

Kirol elkarte guziek bezala, ABARRATIAk ere 2020 urte gogorra bizi izan du, COVID-19aren pandemiagatik. Alta, urtea ontsa partitu zen gazteendako; mutikoek esku huskan trinketeko txapelketan parte hartzen zuten, eta neskek gomazko paletan. Baina, entrenamendu eta txapelketa guziak gelditu behar izan ziren, **martxoaren 17tik maiatzaren 11ra**.

Maiatz erditsutan, aktibitateak berriz hasi ziren, baina lizentziadunak ahal bezain baldintza hobereenetan hartzeko protokolo zorrotza aplikatuz: gel hidroalkoholikoa, presentzia-erregistroa, parte komunak garbiketa... Mutikoek esku huskan frontoiko txapelketetan parte hartu ahal izan zuten. Nesken kasuan, aldiz, trinketeetan jokatzen dutenez, ekainean bururatu zitzaizkien denboraldia.

Agorril hondarrean, klubak **2020-2021**eko denboraldia abiatu zuen 70 lizentziadunekin eta prebentzio-neurriak errespetatuz. Baina, **urriaren 29an**, bigarren konfinamendua ezarri zen, eta berriz osoki gelditu behar izan genuen, **abenduaren 15 arte**.

Hala ere, 2020an, kluba kontent da esku huskako txapelketetan bi talde finalera heldu baitziren. Azpimarratu behar da **Xalbat Duhalde eta Mattin Echevertz** bikoteak gaztetxo mailako 3 txapelketetan parte hartu eta irabazi zuela.

Urteko kontuen **emaitza positiboa** izan da: **1.840,93 €**. Emaitza hori, batez ere, herriaren dirulaguntzen eta Aiherran 2020/03/15ean herriko bozen kari antolatu bixkotx salmentaren ondorio da.

2021 urtea duda testuinguru batean hasi dugu. Lehen hiru hilabeteetan geldirik egon ondoren, gure gazteek berriz hasi dituzte frontoiko entrenamenduak. Agian ekainean txapelketak berriz hasiko dira. Eta, oroz gainetik, espero dugu aurten pandemia honen amaiera biziko dugula.

2020an JOKATU FINALEN EMAITZAK

NOIZ	NON	TXAPELKETA	BIKOTEAK	EMAITZA
2020/01/25	MILAFRANGA	C.T.P.B FINALA, ESKU HUSKA, TRINKETAN GAZTETXOEN MAILAN / A MULTZOA	ABARRATIA 01 (Xalbat DUHALDE – Mattin ECHEVERTZ) OZTIBARTARRAK 01 (Eneko IBARROLA – Antton LOPEPE)	40 38
2020/02/15	SENPERE	FFBP FINALA, ESKU HUSKA, TRINKETAN GAZTETXOEN MAILAN / A MULTZOA	ABARRATIA (Xalbat DUHALDE – Mattin ECHEVERTZ) OZTIBARTARRAK (Eneko IBARROLA – Antton LOPEPE)	40 26
2020/08/31	DONAIXTI-IBARRE	FFBP FINALA, ESKU HUSKA, PLAZAN GAZTETXOEN MAILAN	ABARRATIA (Xalbat DUHALDE – Mattin ECHEVERTZ) S.A. MAULEONAI (Julen LANOUGUERE – Txomin SALLABERRENBORDE)	30 19
2020/09/13	DONAPALEU	FFBP FINALA, ESKU HUSKA, FRONTOIAN KADETEEN MAILAN	ITSASUARRAK (Xabi CARRICART – Estebe PARACHU) ABARRATIA (Mattin DURRUTY – Xabi HARGUINDEGUY)	30 11



Mattin ECHEVERTZ – Xalbat DUHALDE



Xabi HARGUINDEGUY – Mattin DURRUTY

Izturitzeko Baimendu Ihiziaren Herriko Elkarte (Association Communale de Chasse Agréée) - 2020

Izturitzeko Baimendu Ihiziaren Herriko Elkarteak (frantsesez, ACCA) gaur egun, hogeita hamar bat ihiztari biltzen ditu (horien erdiak ez dira gure herrian bizi).

Izturitzeko herriaren azalera, orotara, 1370 hektareakoa da; haietarik 140 hektarea Ihiziaren eta Basa Faunaren Erreserba gisa sailkatuak dira (herriaren erdialdean, hots, guti gorabehera, Oihanburuko eta Axorolako bideen artean diren lurrak).

Itxura anitzeko bazterrak ditugu gure herrian –oihanak, larreak, iratzelekuak, pentzeak–. Hemen, animalia anitz bizi da. Hauek dira ihiztarien jomugan direnak: orkatzak, basurdeak, lapinak, erbiak, urzoak, basoilarrak eta pekadak.

Ihizia aktibitate aberatsa da. Aire librea, gorputz ariketa, ihizi xerkatzea (ardura, nork bere "ihizia" du, ihiztariak gero eta espezializatuagoak baitira), txakurr(ar)ekin egin lana, batzuetan esku hutsik sartzea, bestetan erreusitzea, baina, oroz gainetik, ingurumenari berriz lotzen gaituen aktibitatea da.

Ihiztarien gizarte-aniztasuna harrigarria da: eraikuntzako langileak, laborariak, kirurgilariak, aeronautikako langile erretretatuak, postariak, ilobak, osabak... Izan ere, alde batetik, ofizio desberdinak dituzten pertsonak biltzen ditu, eta, bestetik, belaunaldien arteko nahasketa azkarra bada ere. Batzuetan, hiru belaunaldi ari dira elkarrekin ihizian!


Segur baietz... lehen ihiztari gehiago ginen, eta gero eta bilo xuri gehiago bada gure artean! Arrazoia da segur aski familiaren transmisioa ez dela lehen bezainbat egiten, eta, gainera, belaunaldi gazteei proposatzen zaizkien aktibitateak lehen baino anitzagoak direla egun.

Urrun da –baina oroimen kolektiboak ez du ahortzi– herriko gazte guztiak esku huska ari ziren (oroitarazi behar dea erroik debekatzen zuela trebatzaileak pala baten hartzea?) eta ihiztatzeke lizentzia pasatzen zuten garaia!

Ihiztatzeke, behar da animalia gibeletik ibili... Eta, horretarako, ontsa behatu behar da! Horregatik, **2021eko udan "Gure herriko faunaren ezagutzea" izendatu bi edo hiru ateraldi proposatuko ditugu, 20:00etatik eguzkia sartu arte**. Ez beldurrik izan; ez da armarik izanen, ez eta iratzeetan jostetan ari izanen den txakurrik ere (jadaneko ihiziaren irekidura dela pentsa lezakete haiek). Ekar zapata pare on bat edo tenisak (kolore bizikoak badira, ez da deus larririk; animaliek ez dituzte koloreak gu bezala ikusten), eta jantzi egokiak... Urririk emanen dizkizuegu largabistak eta gaua kanpoan ez pasatzeko edo ez galtzeko gidaliburua!

Argibide gehiago nahi baduzue, dei ACCAren bulegoko kide bat:

- Guillaume LABARERE: 06.59.91.88.04
- Peyo ETCHEGOYEN: 06.79.71.67.46
- Jon ETCHART: 07.82.66.15.67





Artetxea elkarteak

Artetxea elkarteak, beste ainitzek bezala, urte berezia bizi izan du . Alabainan, usaiako animazio eta jarduera gehienak ez dira egin ahal izan.

Halere, udako kantaldia egin da elizan, Ruper Ordorika eta Aire ahizpak taldeekin, publiko eder baten aintzinean. Bestalde, azken urteetako usaiari jarraikiz, dotzena bat antzerkilari gazte ibili dira udan zehar antzerki baten prestatzen, maleruski eman ahal izan ez dutena. Araiz aurten emaiten ahalko dute herriko pesten karietara!

2021eko egitarauaren prestatzea zaila zauku, egoera aldatzen den heinean urratsez urrats eginen dugu. Jadanik erran dezakegu agorrileko kantaldian Eñaut Elorrieta izanen dela gure afitxa burua !

Bestalde Artetxea eraikinaren hobetzen segitzen dugu. Kanpoko aterbea ikusi dukezue, hau baliatua izanen da taloen erretzeko, pestetako bazkariaren prestatzeko eta beste...

Aurten bideo proiektagailu bat eta pantaila haundi bat erostekoak ditugu marrazki bizidunak, filmak edo dokumentalak erakusteko asmoarekin.

Egoera berriz usaiekora jinen delarik, Artetxea elkarteak prest izanen da bere kultura eskaintzaren zabaltzeko !

Oroitu, urtean zehar, Artetxean jarduera ainitzak proposatuak direla:

Yoseikan budo, Yoseikan training, Yoga, Euskara kurtsoak, kantu errepikak, ...

Bukatzeko, oroitaraz dezagun Artetxea elkarteak bi helburu nagusirekin sortu zela.

Alde batetik azken urteetan hetsia zen herriko ontasun bati bizi berri baten emaitako eta bestetik euskarari arnagune baten segurtatzeko euskarazko jarduerak proposatuz urte osoan.

Ongi etorria nahi duen orori !

Arberoa Ikastola Aintzina

Arberoa ikastola aintzina Izturitzen kokatzen den elkarte bat da, haurrak Arberoa ikastolan dituzten burasoek osatzen dute.

Urtero ekintza ezberdinak antolatzen ditu Izturitzen (Arberoa eguna, eguberriko merkatua tokiko ekoizle eta eskulan egileekin) :

* Arberoa ikastolaren eguneroko gastu ezberdinen estaltzeko (irakasle laguntzaile diren 3 langileen hilabete sariak, ikas materiala, askariak ...).

- herriko bizian parte hartzeko.
- Jaz ezin izan dugu antolatu animaziorik bainan aurten espero dugu posible izanen zaukula gertakari eder zorbaiten antolatzea

Arberoa ikastolaren proiektua komunikazio empatikoan, nortasunaren eta autonomiaren garapenean, eta ingurumenaren errespetuan (ondarkinen berexketa, askari biologikoak, baratzea...) oinarritzen da. 2008an ideki zen 5 haurrekin, gaurregun 60 ikasle dira, Izturitzeko 15 haur barne.

Ikastolako ibilmoldeaz edota pedagogiaz xehetasun gehiago nahi luketenentzat, ez duda ikastolara zuzenki deituz : 05 59 29 76 23.

Edo herriko buraso hauetarik batekin harremanetan sartu :

- Aline Dupouy : 09 60 14 79 30.
- Sandrine Arotçaréna : 05 59 29 46 25.



Begira gure webgunea :
arberoaikastola.org